



2017 ZIRKO UDALEKUA UITZIKO BARNETEGIAN



(LARRAUN - NAFARROA)

1. txanda: 2017ko uztailaren 17tik 23 arte
2. txanda: 2017ko uztailaren 24tik 30 arte

6 eta 13 urte tarteko haurrenarako

Astitzko Aterpea, S.L. elkarteak antolatutako eta Nafarroako Rural Kutxak sustatutako Uitziko Zirko Udalekuaren bosgarren saialdi hau 6 eta 13 urte tarteko haurrenarako izanen da eta Uitziko Barnetegian (Larraun bailaran) burutuko dugu, gure begirale profesionalen lan taldeak eta Oreka Zirko Eskolarekin diplomatutako irakasleek zuzenduko eta dinamizatuko dutelarik.

Udaleku honetako parte-hartzaileek zirkoaren oinarriko teknikekin hartueman izango dute, baina helburua teknika horiek bereganatzea ez ezik, udalekuko bizipenek zirkoaren praktikaren grina modu dibertigarri ulertzen laguntzea ere, bada. Horregatik, gure asmoa taldeak zenbait orduen buruan ezagutza teknikoak jasotzeaz gain, egun osoan zehar zirkoko giroan murgiltzea izanen da.

Uitzi herria txoko zoragarri betetako landa-gunea izanik, Udalekuaren buruan zirkoari lotutako jarduerak (malabareak, akrobazia, trapezioa, aireko oihalak, oreka-kablea...) eta landa inguru ederraren gozamenerako jarduerak bateratuko dira.

Ama Lurra maitatuz, eta zirkoaren bitartez, jarduera sortzaileak garatu nahi ditugu, jolasaren bitartez sormena bultzatuz eta mugimenduari zirrarak eta elkarrizketak piztuz. Aldi berean, gorputz-ikerketa eta gorputz adierazpenetik abiatuz, jarrera osasungarriak sustatu nahi ditugu; honek suposatuko du Udalekuko parte-hartzaileek zailtasun mailak ulertuko dituztela eta elkarrengan laguntza bilatuko dutela. Bien bitartean, parte-hartzaileek beren buruarekiko konfiantza hartuko dute eta norberak bere mugak jartzen dituela konturatuko dira. Hots, hau izango da Udaleku bat non haur taldeak bizipenen elkartrukaketaren bitartez ikasi eta gozatuko duen.

Pentsio osoan Zirko Udalekura etortzeko tarifak hauexek dira::

Zirko Udalekua:	275 € / parte hartzailea.
Lehenengo anai-arreba:	247 € / 1. anai-arreba.
Bigarren anai-arreba:	234 € / 2. anai-arreba.

Oso laster arte!!!